

DIRU ITURRIAK

Gure poltsikoetatik aterako dugun diruaz gain, donazioak egiteko kontu korrante bat jarriko da. Agerian dago, ez dugula diru donazio handirik jasoko. Hala ere, beste dokumentuetan aipatu bezala, garrantzi gehiago du laguntza fisikoak. Hau da, gure ondoan lan egitera eskaintzen diren pertsonak.

Proiektua aurrera atera dadin, beste gauzen artean, donazioetan oinarrituko gara. Jakin bezala, hauek guztiz bolondresak dira. Edozein ekarpen eskertua izango da.

Bestalde, beste diru sarrera moduan, pintxo salketa egingo dugu. Pintxo hauek publiko guztiarentzat izango dira. Gainera, etxean prestatuko dira. Mota eta zapore askokoak izango dira, gustu guztientzako. Hauek saltzerako orduan, toki ikusgai eta ezagun batean karpa txikitxo bat jarriko dugu salmenta hau egiteko. Honela postu deigarri bat sortuko dugu eta jendearen atentzioa deituz, ahal moduan lortu dezakegun diru kopuru gehiena bilduko dugu. Erosten duten guztiei gure egoera azalduko diegu eta proiektuan parte hartzeko aukera izango dute.